

2026ko EKAINA

# BERMEON ZER?

## Ekainak 11
**Zinegoak Hedapena. Film laburren emanaldia**

## Ekainak 12
**‘Itsasontziak 1967-1978. Alejando Ugalde’, dokumentalaren aurkezpena**

## Ekainak 23
**San Juan bezpera**

## Ekainak 24
**San Juan Eguna**

BERMEOKO UDALA

**02** **Martitzena**
*Ormabarrieta eguneko zentroan*
*12:00etan*

**MUSIKA**
## DOINUAK
Triki eta pandero taldeak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Lameran*
*19:00etan*

**MUSIKA**
## TUTTI KONTZERTUA
Musika eskolako taldeak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**03** **Eguaztena**
*Egoitz Alai egoitzan*
*12:00etan*

**MUSIKA**
## SOINUAK
Erroxape Abesbatza
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**05** **Barikua**
*Arrantzaleen Museoan*
*19:00etan*




**LIBURU AURKEZPENA**
## 'LAS LEALTADES DE FORTÚN GARCÍA DE ERCILLA', Mikel Mancisidor
Hizlariak: Mikel Mancisidor, Ruper Ormaza eta Asier Romero
Izena eman: Arrantzaleen Museoan
*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

*Erroxaperen lokalean*
*19:00etan*

**EKITALDIA**
## BINGOA
*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen elkartea***

*Bermeoko Kafe Antzokiaren goiko aldean*

**MUSIKA**
## KONTZERTUA
psych-folk&tradition (Eibar)
Sarrera: 8 €
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Kafe Antzokia***

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) ____ 900.840.111
AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat . Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU) ____ 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA ____ 946.179.160
- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZTION ARDURA DA

BERMEOKO UDALA

**06 07** **Zapatua Domeka**
*Erretenen 12:00etatik aurrera*

## AZOKA SOLIDARIOA

Minbiziaren Aurka Bermeon elkarteko boluntarioen urteroko azoka solidarioa

*Antolatzailea:* ***Minbiziaren Aurka Bermeon***



**06** **Zapatua**
*Portuzarran 09:00-13:00*

## EKIMENA

### HONDARTZEN ETA ITSAS HONDOEN GARBIKETA

Bermeoko portua eta itsas hondoa garbitzeko deialdia

Informazio gehiago: izarosub@izarosub.eus

*Antolatzailea:* ***Izaro Sub***




*Bree elkartean (Esparru kalea 1) Egun osoan*

## ATE IREKIAK

### BREE ELKARTEAN

Elkarteko kideak bertan izango dira elkarteak nola funtzionatzen duen eta mahai eta rol jokoak hainbat formatutan sustatzeko duen misioa azaltzeko.

Hainbat mahai-jokori buruzko azalpenak emango dituzte: Warhammer 40.000, Warhammer The Old World (Fantasy), Magic: The Gathering karta-jokoa, MESBG Eraztunen Jauna, Descent, mahai-joko klasikoen bilduma zabala, Dungeons & Dragons, miniatura-pinturarako hastapenak... eta gehiago.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Rol Eskola Elkartea***



*Artza frontoian 20:00etan*

## KIROLA

### BOXEO GAUA

Neoprofesional eta afizionatuen borrokaldiak

*Antolatzailea:* ***Urdaibaiboxing***

*Laguntzailea:* ***Bermeoko Udala***




**07** **Domeka**
*Lameran*




## KIROLA

### IV. TXIRRINDU FESTA

10:30-11:00. Jatekoa batuko da

11:00-12:00. Bermeoko kaleetatik ibilbidea

12:00-14:30. Trebetasun-zirkuitua, puzgarriak eta disko festa

Oharra: ez ahaztu kaskoa

*Antolatzaileak:* ***Bermeoko Udala, Matxitxako T.K.T., Orkatzeta eta Bermeoko Ziklistek***

**07** **Domeka**
*Santa Maria elizan*
*11:30-13:30*

## DENDA SOLIDARIOA
KIDENDA
Bidezko merkataritza
*Antolatzailea:* ***Kidenda***

**09** **Martitzena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00etan*

## MUSIKA
SOINUAK
Piano ikasleak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Gizarte eta Kultura etxean*
*17:30-19:30*



## TAILERRA
BAKARKA BIDAIATZEKO GAKOAK
Tailerraren helburua da emakumeak trebatzea eta ahalduntzea, mundua modu autonomo, seguru eta askean esploratu ahal izan dezaten. Bakarka bidaiatzea ez delako bakarrik joatea, baizik eta norberarekin konektatzeko, konfiantza irabazteko eta norberaren lekua hartzeko prozesua.
Bigarren saioa: Ekainak 16
Izen-ematea ezinbestekoa da: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 638 449
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Gizarte eta Kultura etxeko hitzaldi aretoan*
*19:00etan*




## IKASTAROA
BATUZ
BATUZ Bizkaiko Ogasunaren proiektu bat da, Bizkaiko enpresa guztiei zerga-betebeharrak betetzen laguntzera eta kontrolatzera bideratua, haien izaera, tamaina eta jarduera-sektorea edozein izanik ere.
Elkarteak ere, erakunde juridikoak direnez, betebehar hori ere bete behar dute. BATUZ derrigorrezkoa da erakunde guztientzat 2026ko urtarriletik aurrera.
La Tercera Pata elkarteak eskainiko du ikastaroa. Irabazi-asmorik gabeko sektorean espezializatutako elkartea da; iraunkortasun ekonomikoaren ikuspegi egokitua du eta elkarteetan sortzen diren galderei erantzun argiak ematen dizkie. Era berean, Foru Aldundiarekin batera prestakuntza bideratzen du.
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**10** **Eguaztena**
*Sancti Spiritus egoitzan*
*12:00etan*

## MUSIKA
DOINUAK
Erroxape Abesbatza
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**10** **Eguaztena**
*Nestor Basterretxea aretoan*
*19:30ean*

## MUSIKA
### SOINUAK
Gitarra ikasleak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**11** **Eguena**
*Sancti Spiritus egoitzan*
*11:00etan*

## EKIMENA
### MUSEOAK ETA ALZHEIMERRA
Alzheimer gaixotasunaren edo beste dementzia batzuen lehen mailetan edo fase moderatuan dauden pertsonei, zaintzaileei eta haien senideei artea eta kultura-ondarea hurbiltzea du helburu 'Museoak eta Alzheimerra' ekimenak
*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

*Sancti Spiritus egoitzan*
*16:30ean*

## MUSIKA
### DOINUAK
Gitarra ikasleak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Frantziskotarren klaustroan*
*18:00etan*

## MUSIKA
### KANTA-KANTA
Koroa
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Nestor Basterretxea aretoan*
*18:30ean*

## FILM EMANALDIAK
### ZINEGOAK HEDAPENA
Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
Doan
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




*Burujabetasun zelaian*

## GURE ZIRKUA BERMEON
Nortasun berezi, xelebre eta irribarretsua duten artistez osatutako konpainiak ezinezkoarekin jolas egin asmo du, eta beren ametsetako ikuskizuna eskaini. Beren arte eskuzabal eta herrikoia erakutsi nahi digute. Beren lanbidea, edertasuna eta ausardia elkarbanatu nahi dute herri osoarekin, adin eta maila guztietako herritarrekin.
Ordutegiak eta sarrerak: www.gurezirkua.eus
*Antolatzailea:* ***Gure Zirkua***
*Laguntzailea:* ***Bermeoko Udala***




**12** **Barikua**
*Lameran*
*14:00etan*

## TOPAKETA
### UDA AURREKOA
Bermeoko Berbalagunen uda aurreko topaketa, bazkaltzera joateko
Izena emateko azken eguna: ekainaren 10a
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



## 12 Barikua

*Nestor Basterretxea aretoan 19:00etan*

**DOKUMENTALAREN AURKEZPENA**
'ITSASONTZIAK 1967-1978. ALEJANDRO UGALDE'
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



*Erroxaperen lokalean 19:30ean*

**MUSIKA**
EMANALDIA
Erroxapeko Martxa taldea
*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen elkartea***

*Bermeoko Kafe Antzokiko terrazan*

**MUSIKA**
KONTZERTUA
Jon Fresko eta Lagunak. Bertsioak eskolako ikasleekin
Doan
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Kafe Antzokia***



## 13 Zapatua

*Eleizalde Ikastolan 12:00etatik aurrera*

**EKITALDIA**
IKASTOLA EGUNA
Txiki eta nagusientzako ekintzak: puzgarriak, tailerrak, dantzak, aparra, erromeria...
*Antolatzailea:* ***Eleizalde Ikastola***

*Artza frontoian 18:00etan*

**KIROLA**
PALA MOTZA TXAPELKETA
Fletxari omenaldia
*Antolatzailea:* ***Zesta eta Pala elkartea***

*Bermeoko Kafe Antzokiaren goiko aldean*

**MUSIKA**
KONTZERTUA
CROWNLEDGE: Kraut psych&post punk (Portugalete)
PETROLORD: Heavy punk miscelanea (Bermeo).
Sarrera: 8 €
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Kafe Antzokia***



## 14 Domeka

*Talako kantinatik 10:30ean*

**IBILBIDEA**
BLOOMSDAY EGUNA
James Joyce irlandarraren literaturaren eguna
*Antolatzailea:* ***Laguncara elkartea***

*Sanjuanportaletik 11:00etan hasita*




**KALEJIRA**
ERRALDOIEN BILKURA
Bermeoko Erraldoien Konpartsak 20 urte beteko ditu aurten eta herriari oparitu gura dio erraldoiz beteriko eguna. Horretarako, Euskal Herriko hainbat txokotako konpartsak gonbidatu ditu euren erraldoiekin herria girotzeko.
Ibilbidea: Sanjuanportale, Alde Zaharra, Lamera eta Portuzarra
Parte-hartzaileak: Bizkaiko gaiteroak, Sanduzelaiko erraldoiak (Iruñea), Ondalan (Deustu), LEBE (Lekeitio), Irrintzi (Donostia), Bihotza konpartsa (Urduña), Mundakako erraldoiak (Mundaka), Arrasateko Erraldoien Konpartsa (Arrasate) eta Bermeoko Erraldoien Konpartsa (Bermeo).
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Erraldoien Konpartsa***
*Laguntzailea:* ***Bermeoko Udala***

**15** **Astelehena**
*Sancti Spiritus egoitzan*
*12:00etan*

**MUSIKA**
DOINUAK
Trikitilariak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**16** **Martitzena**
*Egoitz Alai egoitzan*
*12:00etan*

**MUSIKA**
DOINUAK
Trikitilariak
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Sancti Spiritus egoitzan*
*16:30ean*

**MUSIKA**
DOINUAK
Flauta
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Frantziskotarren klaustroan*
*18:30ean*

**MUSIKA**
HAIZESOKA
Tronpeta, saxoa, txeloa eta flauta
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




**17** **Eguaztena**
*Liburutegian*
*18:30ean*

**LIBURU AURKEZPENA**
'NO PASA NADA', Bego Prados
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




**18** **Eguena**
*Nestor Basterretxea aretoan*
*12:40an*

**IKUSKIZUNA**
'MIMARTE', Peter Roberts
Gazteen alkohol-kontsumoaren abusuaren prebentzioa
Bermeoko Institutuko DBH 2ko ikasleentzat
INFO + www.gizbermeo.blogspot.com
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Gizarte eta Kultura Etxeko 1.2 entsegu gelan*
*19:00etan*

**IKASTAROA**
IRRINTZI IKASTAROA
Izena eman Gizarte eta Kultura etxean ekainaren 1etik aurrera, plazak agortu arte
Informazioa: Kultura Sailean 94 617 91 57
*Ekarri ur botila eta esterilla bat lurrean etzateko
Irakaslea: Amaia Garcia
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




*Liburutegian*
*19:00etan*

**LIBURU AURKEZPENA**
'PUTA JAINKOTIARRAK', Asel Luzarraga
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



- **Haurrak**
  (4 urtetik gora)
- **Gazteak**
- **Helduak**

**Musika ikasteko aukera!!!**

# UDALAREN MUSIKA ESKOLA

# 2026-27 MATRIKULA

**Maiatzaren 25etik ekainaren 15era**



musikaeskola@bermeo.eus

Tfnoa: 94 617 91 56

Jose Antonio Egia
Udalaren Musika Eskola

**17** **Eguaztena**
**18** **Eguena**
*Gizarte eta Kultura Etxean*
*Ekainak 17*
*14:00-16:00*
*Ekainak 18*
*08:00-10:00*

## PRESTAKUNTZA
### 'NIK SINISTU EITZENTSUT. HAMEN NAU'
Bermeoko Puntu Seguruen sarera batzeko prestakuntza, merkatari eta tabernariei zuzendua´
Zure taberna, denda, gimnasioa, klinika, ile-apaindegia edo okindegia babeslekua izan daiteke. Indarkeria matxista jasaten duten pertsonek zure laguntza behar dute. Lagundu herri seguruagoa egiten
Beharrezkoa da izena ematea: berdintasuna@bermeo.eus – 688 638 449
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**19** **Barikua**
*Talan*

## JAIA
### NAUTIKA ESKOLAREN 50. URTEURRENA
EGITARAUA:
13:00. Kalejira Joxepa kale kale taldearekin
15:00. Herri bazkaria
16:30. Umeentzako jolasak
18:30. Gautegun taldearekin erromeria
21:30. Radio Guerrilla taldearen kontzertua
23:00. DJa
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Nautika Eskola***



*Areneko kiroldegian*
*Arratsaldez*

## KIROLA
### GIMNASTIKA ERRITMIKOA
Ikasturte amaierako jaia
*Antolatzailea:* ***Xixili gimnastika taldea***

*Gizarte eta Kultura Etxeko hitzaldi aretoko erakusleihoan*

## ERAKUSKETA
### BARRUETA ARTE ELKARTEAREN UMEEN TAILERREKO ERAKUSKETA

*Gizarte eta Kultura Etxean*
*17:30-19:30*

## TAILERRA
### PLENOPAUSIA TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA
40-55 urte bitarteko emakumeei zuzendutako tailerraren azken saioa
Trebatzailea: Ana Valles
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Liburutegian*
*18:30ean*

## LIBURU AURKEZPENA
### 'OLIBONDOAREN HERRIA. Palestinako gatazka ulertzeko hamar gako'
*Idazlea: Markel Elorza*
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**20** **Zapatua**
**21** **Domeka**
*Taraskan eta Klaustroan*
*Zapatuan:*
*11:00 - 21:00*
*Domekan*
*11:00 - 16:00*

## BERTON AZOKA
Azoka honen helburua da herriko komertzioek eskaintzen dituzten kalitatezko zerbitzu eta produktuak herriari erakustea, herritik irten barik, eskura dauden hainbeste aukera eskaintzea
Ekintzak:
- Gastrogunea
- Txikigunea
- Produktu eta zerbitzuen erakusketak
- Zozketak

*Antolatzailea:* ***Berton***



2026KO UDABERRIKO

# berbalagun lehiaketa

Parte hartu lehiaketan eta Bermeoko produktuak irabazi. Zelan? Bete orri hau, argazkia atera eta bidali **whatsappez 607 609 580 zenbakira.**

**Azken eguna: ekainaren 10a.**
Erantzun zuzenak eta saridunak: berbalagun eta sustatzaileen sare sozialetan.

**Bermeoko berbalagun**
http://praktikatu.eus/blog/bermeo

Izena:

______________________________

Telefonoa:____________________

## ❶ Lotu, zenbakia idatziz:

1. Aditzaile onari ☐ Erdi ustel
2. Sua eta ura ☐ Altxorra da
3. Usteak ☐ Hitz gutxi
4. Izena duenak ☐ Inoiz baino
5. Gauean ibili ☐ Izana du
6. Lagun ona ☐ Belaunetik behera
7. Hobe berandu ☐ Goizean ageri

## ❷ Zelan dago ontzi zuri polit bat, uraren gainean, kantaren arabera?

- ☐ Lasai-lasai, kaia barrenean
- ☐ Zikin-zikin, kaia barrenean
- ☐ Arin-arin, kaia barrenean
- ☐ Isil-isilik, kaia barrenean

## ❸ Argazkiko sendabelarra da:

- ☐ Zaingorria
- ☐ Luki buztana
- ☐ Pasmo belarra
- ☐ Berbena belarra



## ❹ Bermeoko jairik onena da:

______________________________

Berba lagun 607 609 580
praktikatu.eus/blog/bermeo
bermeoberba@gmail.com

praktikatu

Babesleak

Bizkaia

Sustatzaileak

Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala

Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia

Bermeoko Euskaltegia

Bermeoko Udala Euskara Saila

**20** **Zapatua**
*Arrantzaleen Museoan*
*11:30-13:30*



## UMEENTZAKO TAILERRA
## 'HARRO'

Aurten ere, Arrantzaleen Museoak bat egiten du Harrotasunarekin, gure itsasbazterra aniztasunez, argiz eta biziz betetzeko. Gure ondarea kolore guztietakoa dela aldarrikatu nahi dugu, eta, horretarako, artista gazteenen laguntza eta irudimen mugaezina behar dugu!
Adina: 4-12 urte
Hizkuntza. Euskaraz
Prezioa: 1 €
Informazioa eta erreserbak: 94-688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus
Erreserba beharrezkoa da, aforo mugatua

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***




*Itxas Gane futbol zelaian*
*12:00etan*

## KIROLA
## FUTBOL PARTIDU SOLIDARIOA

Beteranoen partidua: Bermeo-Arenas
Batutako dirua Minbiziaren Aurkako Bermeoko Elkartearentzat izango da

*Antolatzailea:* ***Bermeo Klub Futbolari Beteranoen Elkartea***

*BREE elkartean (Esparru kalea 1)*

## TXAPELKETA
## BIZKAIKO HIRUGARREN OPENA




Warhammer 40000 banakako txapelketa, 20 jokalarirekin

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Rol Eskola Elkartea***

**21** **Domeka**
*Lameran*
*12:00etan*

## EUSKAL DANTZAK
## XXXVIII. DANTZARI TXIKI EGUNA

Talde parte-hartzaileak: Alkartasuna Dantza Taldea (Bermeo), Itxas Alde (Bakio), Irrintzi Alai (Busturia), Urdaibai (Forua), Elai Alai (Gernika-Lumo), Baso-Txoritxu (Ibarruri), Lorea (Ibarrangelu) eta Artie (Gautegiz Arteaga)




*Antolatzailea:* ***Alkartasuna Dantza Taldea***

*Laguntzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Taraskan*
*19:00etatik aurrera*

## NAZIOARTEKO YOGAREN EGUNA
## YOGA SAIOA

Zuzeneko musika, bihotzaren kantuak, gorputzaren dinamika eta ibilaldi kontzientea ikusgai
Publiko guztiari zabalik, yoga praktikatzen dutenentzat zein ez dutenentzat
Doan

*Antolatzailea:* ***Lorea Alberdi***

# UDA 26

## LURRA / ARENEKO KIROLDEGIA

adina: 14+

- **STEP**
- **POWER PUMP**
- **ESKALADA** (adin tartea: 8-13 urte bitartean)

## URA / ARENEKO KIROLDEGIA

adina: 14+

- **AKUAFIT**

## OUTDOOR

- **YOGA** 16+ (Burujabetasun zelaian)
- **STRETCH HIPOPRESIBOAK** 16+ (Burujabetasun zelaian)
- **Outdoor HIIT** 16+
- **Outdoor INDARFIT** 45+
- **SKATE TAILERRAK** / adin tartea: 8-14 urte bitartean (Ametzagako skate parkean)
- **KALISTENIA masterclass** 16+ (San Martineko Kalistenia parkea)
- **KARDIOALETAK** 14+ (Portua: bainu-gunea)
- **AKUARUNNING** 14+ (Portuan: bainu-gunea)

### TRABESIA IKASTAROAK (PORTUKO ARRAPALA)

- **GAZTE XIXILI (1000m)** adin tartea: 12-16 urte bitartean
- **TRABESIA XIXILI (1000m)** / 16+
- **TRABESIA LAMERAPUNTE (1500-3000m)** / 16+
- **TRABESIA SALOME** (+3000m) / 16+



Informazio gehiago eta izen-emateak

Bermeo Kirolak

## 23 Martitzena

**SAN JUAN BEZPERA**

**IREKIERA**

GAZTELUGATXE ZENTROA
NATURA-MONUMENTUA

Gaurtik (ekainak 23) aurrera zabalik egongo da (Areilza, 4)

Ordutegia honakoa:
**Igande eta jaiegunetan:** 10:00 – 14:00
**Lanegunetan:** 10:00 – 15:00 / 16:00 – 18:00

**Astelehenetan eta irailaren 9an itxita**

*Gizarte eta Kultura Etxetik 21:00etan*

KALEJIRA ETA SUA

14 atsoak udaletxeko balkoian eskegiko dira goizetik gauera arte.
Usadio zaharrak berritzeko eguna. Urteko gaurik laburrena badator, misterioz eta kondairaz beteta.
Ekitaldia iluntzean:
Kalejira egingo da eta Goiko Plazan amaituko da.
Gizarte eta Kultura Etxea, Andra Mari kalea, Aurrekoetxea, Baztarre, Santa Klara eskailerak, Portuzarra, Lamera, Hurtado Mendoza Kardenala, Talaranzko, Irakaskintza, Doniene eta Goiko Plaza
Ondoren, sua.

Eskerrik asko ekitaldia posible egiten duzuen taldeei: Adarjoleak, Alkartasuna Dantza Taldea, Arrekatxutxa, Bermeoko Abesbatza, Bermeoko Erraldoien Konpartsa, Gaztelugatxe Danborrada, Kankinkabara Txistu Taldea, Kanta kanta lorue, KIETB, Irrintzilariak eta Ttakuntto txalaparta

**Jai Batzordeak San Juan sura plastikorik ez botatzeko deia egiten du, urtero moduan.*
*Karta-azalak egongo dira eskuragarri Gizarte eta Kultura Etxean, Turismo Bulegoan, Areneko Kiroldegian, Berhaz bulegoan, Sancti Spiritus zaharren egoitzan eta San Juan bezperan Kabidxen (sutera botatzeko daukazuna sartzeko)*

**San Juan sue, txarrak kanpora, onak barrure!**

## 24 Eguaztena

**SAN JUAN EGUNA**

Mezak San Juanen



**26** **Barikua**
*Erroxaperen lokalean*
*19:30ean*

**MUSIKA**
UDAKO JAIA
Maika taldearen emanaldia
*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen elkartea***

*Bermeoko Kafe Antzokiko goiko aldean*
*20:30ean*

**MUSIKA**
KONTZERTUA
Iker Piris Bandarekin
Bluesman (Tolosa)
Sarrera: 8 €
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Kafe Antzokia***

**27** **Zapatua**
*San Frantzisko elizan*
*12:00etan*

**OSPAKIZUNA**
BERMEOKO ABESBATZAREN 70. URTEURRENA
Meza abestua eta bazkaria Kasinoan
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Abesbatza***

*Lameran*
*Arratsaldea*
*17:30-22:30*

**JARDUNALDIA**
MAROKOKO KULTURA ETA GASTRONOMIA
Marokoko zaporeak, ohiturak, musika eta dantzak ezagutzeko aukera
*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



*Kapillan*
*19:00etan*

**MUSIKA**
KONTZERTUAK
SOUND SYSTEM
Ori Dub, Bombadil Sound System Herrimin eta Antxon Sagardui (Crudo Bilbao)
Sarrera: 8 €
*Antolatzailea:* ***Nuntxaku***

**28** **Domeka**

**LGTBIQ+ HARROTASUN EGUNA**

**29** **Astelehena**

**SAN PEDRO EGUNA- ARRANTZALEEN KOFRADIAREN EGUNA**



# EUSKERA SAILA

## Nagusien antzerki tailerra

Urritik ekainera bitartean
Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila







## Berbalagun

Udako Berbalagun. Izena emateko azken eguna: ekainaren 17a
Aurkezpena, uztailaren 7an, 18:30ean, Lameran
Doan

**Behargintza**
Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa
Centro de Apoyo al Empleo y Desarrollo Local

01 EKINTZAILETZA

Zure enpresa sortu edo negozio bat bereganatu nahi dozu eta daduen dirulaguntzak ezagutu eta aholkularitza jaso?

02

Langabetua zara eta laneratzeko eta zure prestakuntza hobetzeko laguntza behar dozu?

03

Enpresa eta merkatarientzako dirulaguntza zein laguntza programen barri izan nahi dozu?

**HURBILDU ZAITEZ BERMEOKO UDALEKO BEHARGINTZARA !!**
(udal azoka, 1go solairua, Zubiaur tar Kepa 26-28

behargintza@bermeo.eus
946179190

# ZESTA ESKOLA

## BERMEOKO UDABARRI TXAPELKETA

Maiatzak 31, ekainak 7, ekainak 14
Finalak ekainaren 20an, zapatuan
Kategoriak: Benjamintxoak, benjamin neskak, alebinak, infantilak, kadeteak eta elite

**Antolatzailea:** Bermeoko Zesta Eskola



# GIZ

## BIDAIATEKA

Mundu osoko gidak zure esku udako bidaiak eta oporrak prestatzeko!
Bidaia giden 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpekide txartelak, ISIC, ITIC...

**INFO + www.gizbermeo.blogspot.com**



## AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

**Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua**

Noiz? 2026ko urritik 2027ko maiatzera arte (12 asteburu)
Non? Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean
Ordutegia: Zapatuetan (10:00-18:30)
Baldintzak: 18 urte izatea edo 2027an betetzea, DBHko titulazioa eta euskaraz jakitea.
Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

**INFO + eta izen-ematea www.gizbermeo.blogspot.com**
**688 819 950 (WhatsApp zenbakia) - 946179158**
**giz@bermeo.euss**




# KZ GUNEA

## AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Ekainaren 15ean: 11:00-13:00. Musika aplikazioak zure smartphonean (gaztelaniaz). 2 ordu.
Ekainaren 1etik 12ra: 11:00-13:00. Ofimatika tresnak. LibreOffice (gaztelaniaz). 20 ordu.

## IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Ekainaren 8an:
13-30-15:30 / 15:30-17:30

Zubiaur tar Kepa 26-28 . 1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325. www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

# ZINEA

## NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

*** Abisuak**
*** Areto barruan jarrera desegokia daukan ikuslea kanporatua izango da**

| **SARREREN PREZIOA:** | **ORDUTEGIA:** |
| --- | --- |
| **Zapatu eta domeketan:** 6,00 €<br>**Astelehenetan**, ikuslearen egunean: 4,50 €<br>**Umeen filmak:** 4,50 € | NAGUSIEN FILMAK<br>Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean<br>Astelehenetan, ikuslearen egunean: 19:00etan eta 21:30ean<br>*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean |

**Maiatzak 30-ekainak 1:** .............. Asesinato en la 3ª planta
**Ekainak 6-8:** .................................. El Drama
**Ekainak 13-15:** .............................. Cada día nace un listo
**Ekainak 20-22:** .............................. El día de la revelación



# ERAKUSKETAK

## Arrantzaleen Museoan

### 'OLATUAREN ENBATEAN. EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX. MENDEAN', ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Zalantza barik, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik, rol horrek Bermeo eraikitzea eta garatzea errazten duelako.

**94 688 11 71**
**arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus**

**Martitzenetik zapatura: 10:00 – 19:00**
**Domeka eta jaiegunak: 10:30 – 14:30**
**Astelehenak itxita**



## Lameran

### 'BIZKAIKO FORU BARRIA V. MENDEURRENA 1526-2026'

Foru Berriaren 500 urte ospatzeko ekitaldien barruan, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako erakusketa ibiltaria

**Maiatzaren 28tik ekainaren 7ra**

## Berhaz Bulegoan



### ITSAS PALETA

Benito Barrueta arte elkarteko kide batzuek hartzen dute parte; itsasoaren inguruko koadro batzuk aurkeztu dituzte. Margolan eta argazki batzuen bidez, gertuko eta urrutiko itsas irudi batzuk errepresentatu dituzte.

**Bulegoko ordutegia:**

**Astelehenak, eguaztenak eta barikuak:**

**08:00-15:00**

**Martitzenak eta eguenak: 08:00-14:00**

**eta 16:00-18:00**

**Apirilera bitartean**

## Nestor Basterretxea Aretoan

### Bermeoko erraldoi eta buruhandien erakusketa

Erraldoien panpina txikiak eta hainbat bitxikeria ere ikusi ahal izango ditugu

**Ekainaren 5etik 13ra**

**19:00etatik 21:00etara**

### Barrueta Arte Elkartearen Nagusien tailerreko eta Buztina Keramika tailerreko erakusketa

**Ekainaren 19tik 28ra**

**19:00etatik 21:00etara**

# 2026KO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO JAI-LIBURURAKO ARTIKULUAK ARGITARATZEKO DEIALDIA

**Gaiak:** Bermeorekin lotutako istorioak, kultura, artea, literatura, musika, efemerideak, ipuinak... (iritzi-artikuluak ez dira onartuko)

**Parte-hartzaileak:** 15 urtetik gorako edonor

**Lanen ezaugarriak:** Gehienez 9.000 karaktere (4 orrialde inguru) eta gehienez lan bi pertsonako.

**Aurkezpena:** Berhaz bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8) edo egoitza elektronikoan.

**Epea:** 2026ko ekainaren 26a, 14:00ak arte.



**Argitalpena:**
· Lan gehiegi badaude, egile bakoitzeko lan bakarra argitaratuko da.
· Euskarazko lanak lehenetsiko dira (gaztelaniaz gehienez %20a).

**Irizpideak:**
· Lan originalak eta argitaratu bakoak.
· Eduki diskriminatzaile edota desegokiak (sexu, genero, arrazakeria, etab.) baztertu egingo dira.
· Berdintasuna, inklusioa eta aniztasuna sustatzen duten lanak baloratuko dira. Informazio gehiago: www.bermeo.eus

# ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

**GAIA:** Kartela Bermeoko jaietako adierazle izan behar da eta ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: herrikoiak, parte-hartzaileak, sortzaileak, euskaldunak, feministak, solidarioak eta ekologistak.

**LANAK AURKEZTEA:** Pertsona fisikoek bakarrik parte har dezakete. Lanak 50x70 cm izan behar du eta edozein teknika eta kolore erabil daiteke.

**LANAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA:**
- Online: Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan PDF formatuan.
- Presentziala: BERHAZ bulegoan (50x70 cm-ko tamainarekin euskarri gogorrean) edo PDF formatuan.
- INE 292 eskaera orria bete behar da.

**TESTUA KARTELEAN:** BERMEOKO JAIAK 2026 Irailaren 7tik 16ra.

**KARTEL FINALISTAK AUKERATZEA**
- Epaimahaiak finalistak aukeratuko ditu.
- Herritarren bozketen balioa: %70 (presentziala) eta %30 (online).

**SARIA:** 600 €

**EPEA:** 2026ko ekainaren 26ra arte (14:00)

**INFO+ :** 94 617 91 57 - kultura@bermeo.eus

**LEHIAKETAREN OINARRIAK:** www.bermeo.eus






***Jarri hemen zure publizitatea***
Prezioa: 250 €

**94 617 91 57**
**kultura@bermeo.eus**

www.bermeo.eus

Lege-Gordailua: *BI-3421-2009* · Argitaratzailea: *Bermeoko Udala*